



Mutrikuko Udala

UDALTZAINGOKO AGENTEEN LAN-POLTSA SORTZEKO HAUTAKETA- PROBETARAKO OINARRIAK

2019 URTEA

OINARRIAK

LEHENENGOA.- DEIALDIAREN XEDEA ETA ARAU OROKORRAK

Deialdi honen xedea da Udaltzaingoko agenteen lan-poltsa osagarria osatzeko behar diren hautaketa burutzea, C2 klasifikazio Taldearen barruan eta 2 hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila erakutsita.

Hautatutako langileekin, Udaltzaingoan gerta daitezkeen hutsuneak eta gerta daitezkeen zerbitzu-beharrak bete nahi dira.

Sortuko den lan-poltsak Udal honek zein arlo honetarako eskuduntza duen beste edozein administrazio publikok aurretiaz sortutako lan-poltsakiko lehentasuna izango du.

BIGARRENA.- HAUTAGAIEN BETEBEHARRAK

Probetara onartua izateko eta, hala balitz, haietan parte hartzeko nahitaezko betebeharrak dira:

- a) 18 urte beteta izatea eskaerak aurkezteko azken egunean.
- b) Eskola-graduatu edota lanbide-hezkuntzako lehen maila edo baliokide den beste titulu bat edukitzea edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindurik izatea. Bere kasuan, araudiak zehaztutako baliokidetza egoeren batean egotea.
- c) B motako gidabaimena edukitzea.
- d) Postuaren berezko zereginak betetzea eragotziko dion gaixotasun eta elbarritasun fisikorik ez nozitzea, medikuntzako bazterketen taulan sartuta ez egotea (uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua, Euskal Herriko Poliziaren Hautespen eta Prestakuntza Araudia onartzen duenaren arabera)
- e) 2. Hizkuntza Eskakizunari dagokion euskara maila izatea.
- f) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko inolako kausatan barne ez aurkitzea eta inolako Administrazio Publikotako zerbitzutik diziplina-espeditente bidez baztertu izana ez izatea.
- g) Doluzko delituagatik kondenatua ez izana, Herri Administrazioaren zerbitzutik baztertua ez izana, eta funtzio publikoak betetzeko debekurik ez izatea. Hala ere, birgaitzearen onura aplikatu ahal izango da, zigor- eta administrazio-arauei jarraiki, baldin eta izangaiak dagokion agiri ofizialaren bidez egiaztatzen badu egoera hori.



Mutrikuko Udala

h) Hutsegite larria edo oso larria egin izanagatik Euskal Polizia Kidegoren batean sartzeko hautespen-prozesutik baztertutakoa ez izatea, non eta baztertzea aitortu zenetik zigorraren iraungipen-epea ez den igaro.

Bigarren Oinarrian emandako betebeharrak guztien jabe izan beharko da hautagaia eskabideak aurkezteko epea burutzen den egunean eta mantendu egin beharko ditu langile laboral gisa kontratatzerako egunean.

HIRUGARRENA.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskabideak Mutrikuko Udaleko Erregistro Orokorrean (Txurruka Plaza. 20830 Mutriku) jaso ahal izango den eredu ofizial normalizatua betez aurkeztuko dira, maiatzaren 29a baino lehen.

Halaber, aukera izango da, Herri Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. c) artikuluan araututakoari jarraiki, eskaerak posta-administrazioetan aurkezteko. Horrela egiten bada, eskaerak Udaleko Alkateari zuzenduko zaizkio kartazal ireki batean, posta bulegoko funtzionarioak data eta zigilua jarri diezaion, eskaerak aurkezteko epearen barruan. Baldintza hori betetzen bada soilik onartuko da posta-bulegoko aurkezpen eguna Erregistro Orokorreko sarrera-data gisa.

Ondorengo hauek hartuko dira kontuan:

a) Hautagaiek udaltzaingoko lan-poltsan sartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela jakinarazi beharko dute, betiere eskabideak aurkezteko epeburu egunerako.

b) Hautagaiek hautaketa-probetako ariketak Autonomi Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin behar dituzten adierazi beharko dute. Edozein kasutan ere, epaimahaiak erabakiko balu, gaitasun psikologikoak ebaluatzeko proben diseinu eta garapenerako kanpoko entitate espezializatutako baten laguntza eskatzea, probak diseinatuta dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan egingo dira.

c) Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte hautagaiek:

1. NAN fotokopia, edo identitatea eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentuarena beste estatu bateko hautagaien kasuan.

2. Eskola-graduatu edota lanbide-hezkuntzako lehen maila edo baliokide den beste tituluren baten fotokopia, edo titulazioa erdiesteko ordaindu beharreko eskubideak ordainduta dauzkatela dioen frogagiria.

3. Euskara azterketarik ez egiteko, hautagaiek, 1. hizkuntza-eskakizuna betetzen duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopiaren bidez edo laugarrengo ataleko d) puntuan azaltzen den moduan, 1. HEren baliokide den ziurtagiri edo titulu baten fotokopiaren bidez frogatuko dute.

Hautaprotetan, hala eskatuz gero, ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko zaizkie egokitzapenak behar dituzten eta eskabidean hala adierazi duten %33ko edo hortik gorako ezintasuna duten hautagai ezinduei, halakorik badago.



Mutrikuko Udala

Kasu hauetan, eskaerarekin batera, ezintasun-maila zehazteko organo tekniko eskumendunak emandako irizpen teknikoak aurkeztu beharko dute, eskatutako egokitzapenak bidezkoak diren ala ez balioetsi ahal izan dezan epaimahaiak.

LAUGARRENA.- IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOA BETETZEA

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta aplikagarri diren bestelako arauak. Datu pertsonalak hautapen prozesuan parte hartzeko eskaerak kudeatzeko ez besterako erabiliko dira, interesdunak emandako baimenean eta datu-tratamenduaren arduradunari aitortutako ahal publikoetan oinarrituta; hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak –datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio libreari dagokienean pertsona fisikoak babestekoak– 6.1 artikulua a) eta e) letretan xedatutakoaren arabera, hurrenez hurren. Orobat, parte hartzeko eskaeran izangaiak berariazko baimena eman beharko dute beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu-lagapen horren helburu bakar eta eskusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu-eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala; eta izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da. Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, mugatzeko edo horien aurka egiteko eskubideak erabiltzeko aukera dago, eta horretarako, idatzia bidali beharko da Mutrikuko Udaleko Pertsonal Sailera. Aukeraketa-prozesu hau publikitatearen printzipioak gidatzen du; beraz, prozesu honetan parte hartzen duten pertsonen euren eskabideetan Mutrikuko Udaleri ematen dizkieten datu pertsonalak erabiltzea edo tratatzea onartzen dute, aukeraketa-prozesuaren emaitza partzialak eta behin betikoak argitaratu emateko buletin ofizialetan, iragarki-tauletan, webgunean eta beste hedabide batzuetan.

BOSGARRENA.- HAUTAGAIAK ONARTZEA

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Alkateak onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartuko du. Zerrenda hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 10 laneguneko epea emango da, baztertu izana eragin duten akatsak edo hutsuneak zuzentzeko nahiz zerrendaren aurkako erreklamazioak egiteko.

Erreklamaziorik egiten ez bada, izangaien behin-behineko zerrenda behin betikotzat hartuko da.

Erreklamaziorik egonez gero, balioetsi edo ezetsi egingo dira; eta, kasu horretan, behin-behineko zerrendarako adierazitako moduan argitaratuko da behin betiko zerrenda ere.

Onartutakoen zerrendan agertzeak ez du nahitaez esan nahi hautaketa prozesuan eskatzen diren baldintza guztiak betetzea aitortzen zaienik hautagaiei.

SEIGARRENA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

Hartarako eskumena duen organoak izendatuko ditu epaimahaietako kideak (lehendakaria, bokalak eta idazkaria), eta haiek kalifikatuko dituzte hauta-probak.



Mutrikuko Udala

Epaimahai Kalifikatzailea horrela osatuko da:

Presidentea:

— Zerbitzuaren arduraduna edo hura ordezkatzeko duen pertsona bat.

Mahaikideak:

— Mutrikuko Udaleko zerbitzu horretako langilea edo haren ordezkoa.

Idazkaria:

— Mutrikuko Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea edo haren ordezkoa.

Epaimahaien jardunbidea Administrazio Prozedurako Legeak kide anitzeko organoei buruz agintzen duenari lotuko zaio.

Epaimahaiak aholkulari adituen edo enpresa espezializatuen laguntza eskatu ahal izango du egoki ikusten dituen ariketetarako, eta aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza ematera mugatuko dira.

Epaimahaia eratzeko denetik, balio osoz jardun ahal izateko, epaimahaikideen gehiengoak egon beharko du.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengo bidez hartuko dira.

Epaimahaiburuan dagoenaren kalitatezko botoaren bitartez ebatziko dira berdinketak.

Epaimahaiburua (edo haren ordezkoa) bertaratu ez bada, gaixo dagoelako, bere kargua hutsik dagoelako edo tartean beste lege-arrazoiren bat dagoelako, hierarkian maila goragokoena duen, antzintasun handiena duen edo adinez zaharrena den epaimahaikideak hartuko du haren lekua, esandako hurrenkera horretan.

Idazkari titularren edo haren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixo badago edo titularri zein ordezkoari eragiten dien legezko bestelako arrazoiren bat badago, epaimahaikideen gehiengoaren erabakiz aukeratzen den kideak beteko du haren kargua.

Epaimahaiak autonomia osoz jardungo du, eta bera izango da prozeduraren gardentasunaren eta objektibotasunaren, proben edukiaren eta deialdiko oinarriak zorrotz betetzearen erantzulea.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, batetik, oinarri hauek aplikatzerakoan sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu; bestetik, deialdia behar bezala garatzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu; eta, azkenik, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan erabili beharreko irizpideak ezarriko ditu.

Epaimahai kalifikatzailearen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egitea dagokion organoarentzat, baina horrek ez du esan nahi organo horrek erabakia berrikusi ezin dezakeenik indarrean dagoen Herri Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak aurreikusitakoaren arabera.

Komunikazioetarako eta gainerako gorabehera guztietarako, epaimahaiak honako helbide hau du: Mutrikuko Udala, Txurruka Plaza, 20830 Mutriku.



ZAZPIGARRENA.- HAUTAKETA PROZESUAREN HASIERA ETA GARAPENA. DEIALDIAK ETA JAKINARAZPENAK

Oposizioko lehenengo ariketa non eta noiz izango den Mutrikuko udaletxeko iragarki-taulan eta www.mutriku.eus udal webgunean emango da argitara.

Oposizio-faseko ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Deitzen zaion unean izangai bat ez bada agertzen proba horietako edozeinetara, besterik gabe, galdu egingo du ariketa edo proba horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea. Beraz, aukeraketa-prozesutik baztertuta geratuko da.

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dizkie egokitzapenak behar izan eta eskabidean hala eskatu eta justifikatu duten ezinduei, gainerako parte-hartzaileen aukera berberak izan ditzaten, betiere hori eginda probaren edukia desitxuratzen ez bada eta eskatutako gaitasun maila jaisten edo kaltetzen ez bada.

Prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero hautagaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen betekizunak edo baldintzak, hautagai hori prozeduratik kanpo geratuko da, berari entzun eta gero, eta hautaketa-prozesura deitu duen agintaritzari emango zaio horren berri, egun horretan bertan.

Epaimahaiak oposizio-faseko ariketen ordena aldatzea erabaki dezake. Hala eginez gero, ariketa hasi baino 12 ordu lehenago gutxienez jakinaraziko die hautagaiei.

Interesatuak www.mutriku.eus webgunean eskura dezakete deialdiari buruzko informazio orokorra. Webguneak izaera informatiboa izango du. Bertan begiratu ahal izango dira, besteak beste: Oinarriak, onartutakoen zerrenda, ariketen datak eta lortutako kalifikazioak.

ZORTZIGARRENA.- OPOSIZIO-LEHIAKETA

Hautagai guztiek Nortasun Agiria edo beste edozein dokumentu ofizial ekarri beharko dute probetara, epaimahaiaren iritziz izangaiaren nortasuna behar den moduan egiaztatzekoa dena (pasaportea, gidabaimena, Atzerritarren Identifikaziorako Zenbakia) eta epaimahaiak edozein unetan erakusteko eskatu ahal izango die. Ez NANA ez nor den egiaztatzen duen beste baliokiderik ez erakustekotan, hautagaia hautaketatik baztertuta geratuko da, besterik gabe.

Oposizio-faseko ariketa bakoitzean, ariketak zuzendu eta hautagaien nortasuna ezagutzera eman eta bakoitzaren kalifikazioa erabaki baino lehen, ariketa gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila edo muga ezarri ahal izango du.

Ariketak, oinarri hauetan aurreikusitako hurrenkeran egin beharrean, beste hurrenkera batean egitea erabaki dezake epaimahaiak; egun berean ariketa bat baino gehiago egitea ere erabaki dezake. Kasu horretan, aurreko ariketa gainditu dutenen ariketak bakarrik aztertuko ditu.

Arau orokor legez, lau laneguneko epea ezarriko da, epaimahaiaren ebazpena argitaratzen denetik zenbatuta, egindako azterketak berraztertzeko eskaera egiteko edo azterketei emandako kalifikazioen inguruko erreklamazioak egiteko.



Mutrikuko Udala

Azterketa idatziak egitean, epaimahaiak bidezkoak diren neurriak hartuko ditu hautagaien anonimotasuna bermatzeko, ahal den neurrian betiere.

Deialdi honetako ariketa guztiak Euskal Autonomi Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetariko edozeinetan egin ahal izango dira, hori aurrez eskabidean seinalatuta.

1. proba: Gaitasun fisikoa. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Probak Mutrikuko kirol instalakuntzetan egingo dira,.

Ondorengo proba fisiko hauek egin beharko dira:

1.- Erresistentzia fisikoko proba.

Epaimahaiak ezarriko ditu baremoa eta proba gainditzeko gutxieneko maila.

2.- Indar fisikoko proba.

Epaimahaiak ezarriko ditu baremoa eta proba gainditzeko gutxieneko maila.

3.- Abiadura proba

Epaimahaiak ezarriko ditu baremoa eta proba gainditzeko gutxieneko maila.

GAI edo EZ GAI kalifikatuko da, eta markaturiko gutxieneko mailak lortzen ez dituztenak beste gabe kanporaturik geratuko dira.

2. proba. Euskararen ezagutza-maila egiaztatzea.

Proba honen kalifikazioa gai edo ez gai izango da.

Proba hau ez dute egin beharrik izango 2. hizkuntza eskakizunaren edo baliokide baten egiaztatzea dutenek, seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

3. proba. Azterketa teorikoa.

Epaimahaiak udaltzaingoaren ohiko funtzioei buruz prestatutako galdera batzuei idatziz erantzutea eta aurkeztutako kasu praktiko batzuen aurrean txosten bat burutzea izango da.

Datuak azaltzeko gaitasuna eta edukiaren argitasuna baloratuko dira.

Proba hau 0tik 50era bitarteko puntuazioz kalifikatuko da, eta gutxienez 25 puntu beharko dira hurrengo proba egin ahal izateko.



BEDERATZIGARRENA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN PROPOSAMENA

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa ateratzeko ariketa bakoitzean eta lehiaketaldian lortutako puntuak batuko dira, eta batura horrek finkatuko du hautagaien lehentasunezko hurrenkerara.

Guztiaren kalifikazioa bukatutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak Mutrikuko Udaletxeko iragarkitaulan eta www.mutriku.eus webgunean argitaratuko ditu gainditu duten hautagaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera gehienetik gutxienera ordenatuak, eta puntu gehien lortu dituen hautagaia kontratatzeko proposamena egingo du.

Sailkapenean berdinketa gertatuz gero, hurrengo irizpide hauek hartuko dira kontuan, adierazita dauden hurrenkerari erreparatuz:

- a) Berdinketa duten hautagaietako bat emakumea den kasuetan, emakumeari emango zaio lehentasuna, kontuan izanik 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, 20. artikulua 4. puntuan arautzen duena. Hots, «baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, eta kidego, maila, eskala eta kategoria horietan emakumeak %40 baino gutxiago badira. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenen –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea». Kasu hori gertatuko balitz, ondoren zehazten diren b), c) eta d) irizpideetara joko litzateke berdinketa hausteko:
- b) Ariketa praktikoan puntuazio handiena lortu duena.
- c) Lehiaketa-fasean puntuazio handiena lortu duena.
- d) Oposizio-fasean puntuazio handiena lortu duena.

Baldin eta, Epaimahai Kalifikatzailearen iritziz, deialdira aurkezturiko hautagaien artean ez bada lanpostuan jarduteko gutxienezko baldintzak betetzen dutenik, lanpostua hutsik lagatzea, hau da, esleitu gabe uztea erabaki dezake.

Proposatutako hautagaiak probak gainditu dituzten hautagaien zerrenda argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasi eta zazpi (7) egun naturaleko epean ekarri beharko ditu hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak.

Baldin eta esandako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan gabe, hautagai proposatuak agiriak aurkezten ez baditu edo deialdian eskaturiko baldintzak betetzen dituztela ziurtatu ez badu, ezingo da kontratatua izan eta haren jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Ondorioz, kontratatua izateko duen eskubide guztiak galduko ditu, alde batera utzi gabe hasierako eskabidean gezurra jartzeagatik legokiokeen erantzukizuna.

Kasu horretan, hautaketa prozesua gainditu dutenen artetik, puntuazio ordenan hurrengo lekua betetzen duena kontratatzeko proposamena egingo da. Hori baino lehen, eskatutako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituela egiaztatu beharko du.



Mutrikuko Udala

Ariketen eta merituen kalifikazioa amaitutakoan, oposizio aldiko ariketak gainditu dituzten izangaiekin, prozesu osoan (oposizioan eta lehiaketan) lortutako puntuazio handienetik txikienera zerrendatuta, lan-poltsa osatuko da, oinarri hauen aurreneko atalean xedatutakoaren arabera.

HAMARGARRENA.- INTZIDENTZIAK

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta azterketazko lehiaketaren ordena eta burubide onerako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztietan.

HAMAİKAGARRENA.- AURKA EGITEA

Honako deialdi hau, oinarriok eta honetatik nahiz Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetatik etor daitezkeen egintza administratibo guztien aurka egin ahal izango da, Herri Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako epeetan eta forman.

HAMABIGARRENA.- LAN-POLTSAREN INDARRALDIA

Lan-poltsa hau indarrean mantenduko da beste lan poltsa bat sortu arte.

HAMAHIRUGARRENA.- LEGERIA APLIKAGARRIA

Kontuan izan beharko dira, beti ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dagoen lege xedapenak onartzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretua; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. Estatuko Administrazioaren Zerbitzu Orokorreko pertsonalaren sarrerako erregelamendu nagusia onartzen duen martxoaren 10eko 364/95 Errege Dekretua; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatua; Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legea; Euskadiko udaltzaingoan antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen dituen maiatzaren 5eko 58/2015 Dekretua; Euskal Herriko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua; Urriaren 17ko 224/1989 Dekretua, Eusko Jaurlaritzarena; ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua, eta aplikagarri diren gainerako lege eta erregelamenduzko xedapenak.

Mutrikun, 2019ko maiatzaren 20an



GAI ZERRRENDA OROKORRA

1. Espainiako Konstituzioa:
 - Atariko titulua.
 - I. tituluko II., IV. eta V. kapituluak. Eskubideak eta askatasunak. Oinarrizko askatasunen eta eskubideen bermeak. Eskubideak eta askatasunak kentzea.
2. 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzkoa. II. titulua: I. eta II. kapituluak. III. titulua: I., IV., VI. eta VII. kapituluak. V. titulua.
3. Mutrikuko kaleak, mugikortasuna, interesguneak, eraikin garrantzitsuak, erakunde publikoak, komunikabideak eta orokorrean Mutrikuko eremu geografikoa.
4. Ibiak arautzeko udal-ordenantza.
5. Udalerrian trafikoa arautzeko Ordenantza.
6. Mutrikuko Araututako Hiriko Aparkamendu Zerbitzurako (TAO) Ordenantza.
7. Herritarren elkarbizitza eta espazio publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duen udal ordenantzak.
8. Animaliak edukitzea eta babestea arautzen dituen udal-ordenantza.
9. 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko testu bategina onartzen duena.
10. Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aplikatzeko eta garatzeko Zirkulazioko Araudi Orokorra onartzen duen azaroaren 21eko 1.428/03 Errege Dekretua.
11. Martxoaren 30eko 47/2015 Hiritarren Segurtasunerako Lege Organikoa
12. 3/2018 Datu Pertsonalen Babeserako lege Organikoa: I., II., eta III. Tituluak (1etik 18. artikulura arte)
13. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. II. Tituluko IV. Kapituluak. Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.